

# AUZO BIRA

## AUZO BIRA

2023-2027 legegintzaldiko gobernu planaren  
azalpena



## HERNANI AUZO BIRA, 2026

- Bizilagunekin bilera erronda -

### IPARRALDEA. BATZARRAREN AKTA

DEIALDIA	EGUNA	2026-01-19
	ORDUA	18:30-20:00
	TOKIA	Haurreskola

#### PARTE-HARTZAILEAK:

Emakumeak	Gizonak	Guztira
8	7	15

- Udal ordezkariak: Xabier Lertxundi, alkatea; Axier Mingo Arruabarrena, Euskara, Hezkuntza eta jarduera fisikoa, eta Kiroleko zinegotzia; Aitor Lukas, Gazteria eta Partaidetza zinegotzia. Elena Calvar, partaidetza teknikaria.
- Dinamizazioan: Farapi Kooperatibatik, Gabriela Renteria eta Leire Kortajarena.

#### HIZKUNTZA:

Saioa euskaraz egin da, berehalako itzulpena egin zaio 2 bizilaguni.

## 0. AUZOZ AUZOKO SAIOEN KOKAPENA ETA AURKEZPENA

Lehenik eta behin alkateak hitza hartu du eta parte hartzaileei ongi etorria eman die. Zinegotziak eta Farapiko kideak aurkeztu eta landuko duguna azaldu du.

Farapi kooperatibak, ongi etorria eman die bertaratutako bizilagunei. Ondoren, saioaren nondik norakoak eta helburuak azaldu ditu. Halaber, hizkuntzaren erabileraren inguruko azalpenak eman ditu. Esan bezala, aurkezpenak elebitan izan dira eta hitzartzeak bakoitzak erabakitako hizkuntzan.

Amaitzeko, jardueran zehar parte hartzea nola kudeatuko den eta ordutegia zein izango den zehaztu du. Hala, Hernaniko Udal ordezkariari eman zaie hitza.

## 1. AURKEZPENAK

Aurkezpenari hasiera emateko, Udalak 2023-2027 Gobernu Planaren eguneraketa azaldu du.

- Guztiz beteta %51,9 (70 ekintza)
- Betetzera bidean %36,3 (49 ekintza)
- Betetzen hasi gabe %11,8 (16 ekintza)

Jarraian, herri mailan egingo diren neurri nagusiak aurkeztu dituzte:

- Kultur ekipamendu berria, lehiaketa bidez aukeratua izango dena (udara aurretik aukeratua)
- Gune tentsionatuaren izendapena, hilabete honen amaieran jasotzea espero dena. Udaletik, horrekin batera, planifikatu den 3 urteko ekintza-plana eta etxebizitza behatokiaren sorrera, etxebizitzaren alokairuaren inguruko bitartekaritza.
- Plaka fotovoltaikoak jartzeko Henerkomekin egindako hitzarmena, Hernanin sortzen den energia kudeatu eta kontsumoa bultzatzeko.
- Mantentze lanetarako 2. plana (asfaltatzea). Zona honetan:
  - o Marielutsetik Urbietarako malda
  - o Latsunbe 4 pareko bidegorri eta aparkalekua
  - o Sorgintxulotik Meaberako bidea
- Auzozaintza programa, adinekoei bideratutakoa.

Ondoren, bereziki Iparraldeari dagozkion eskuhartzeak azaldu dira:

- Bankiak
- Sagastialdeko trafikoa: radar pedagogikoa Florida malkarrean eta haurreskolaren aurretik, Donostiarako norantzan; haurreskola pareko errepidean erdiko banaketa zabaldu egingo da karrilak estutuz
- Sagastialdeko saneamendua
- Argiteria
- Mugikortasuna
- Txakur kakak
- Arratoien areagotzea

Jarraian, herritarrek Udalera bideratzen dituzten eskaeren inguruko azalpena eman da Udaletik. Jasotzen den eskaera kopuruak ezinezko egiten du ekarpen guztiei erantzuna ematea, batez ere epe labur batean. Hori dela eta, autokritika egin eta egungo sistemari buelta bat ematearen beharra azpimarratu da.

Honekin batera, espazio honek ematen duen aukeraz baliatuz, Udaletik martxan jarriko den inklusiorako zentroaren nondik norakoak azaldu dira: herrian gizarte egoera zaurgarrian bizi diren 12-15 lagunentzako zentroa izango da, gaur egun Udaltzaingoa dagoen tokian kokatua egongo dena. Aldundiarekin elkarlanean diseinatu den zerbitzua da, Gizarte Zerbitzuen Legeak dioenari erantzuten dio.

Auzotarrek egindako proposamenen bilakaeraren berri ematea etorri da jarraian:

- Antziola: aparkalekuak, trafikoa, Iturmendiko irisgarritasuna, mantenu lanak
- Sagastialde: estolderia, aparkalekuak, Sagastialdeko errepidea
- Etxeberri: zaborra, eskaintza kulturala, argiteria, Florida 08ko pasoa, garraio publikoa
- Florida: gazteentzako espazioak (Calistenia parkea), etxebizitza arazoa, aparkalekuak

## 2. BIZILAGUNEN EKARPENAK

Udal ordezkarien aurkezpenaren ondoren, bizilagunei ekarpenak, zalantzak eta iradokizunak egiteko tarteak eskaini zaie.

HERRI LANAK	
Saguak	<p><i>Zenbait bizilagunek adierazi dute, oraindik ere, saguak ageri direla auzoan.</i></p> <p>Udaletik aurten tranpa berriak jarri direla gogorarazi da herriko zenbait estoldetan. Aztertuko da auzoko estoldetan jarri ote diren, lanketak errefortzurik behar duen ikusteko.</p>

  

INGURUMENA	
Zaborrontziak Sagastialden	<p><i>Zaborrontzi gutxi dagoela aipatu du bizilagun batek, gehiagoren beharra adieraztearekin batera.</i></p> <p>Udaletik azaldu da bere egunean lanketa berezi bat egin zela zaborrontzi kopurua txikitzeko, kontzientziarioa bultzatuz, zaborren kudeaketarako estrategia zabalagoaren baitan. Hala ere, beharra badagoela baloratu da eta zaborrontzi gehiago badatozela ere azaldu da.</p>

  

UDALTZAINGOA	
Sagastialdeko errepidea	<p><i>Herritar batek adierazi du zenbait ibilgailuk errepidean, abiadura moteltzeko dauden kosketatik ez pasatzeko, kontrako norantza gainditzen dutela.</i></p> <p>Udalak honen gaineko kexak eta salaketak jaso dituela azaldu du, bereziki abiadurari eta ikusgaitasun faltari lotutakoak. Honen aurrean hartutako neurriak azaldu ditu. Egindakoen artean, zebrabide batean ikusgaitasuna hobetzeko autoentzako aparkaleku bat motorrentzako aparkaleku bilakatu dute, zebrabide aurreko koskak. Horrekin</p>

	<p>batera, egitekoak ere azaldu dira: radar pedagogikoak; kosken arteko distantzia txikitzea, ondoko karrilera pasatzeko aukera kentzeko; bi karrilen arteko marra zabaltzea, efektu optikoa sortuz abiadura moteltzeko...</p> <p>Argi gelditu da erronka partekatua izanik, jarri diren eta jarriko diren neurrien aldeko apustua egiten bada ere, norbanakoen ardura ere badela modu arduratsu batean gidatzea.</p>
Trafikoa moteltzeko koskak	<p><i>Auzotar batek bere kezka azaldu nahi izan du, trafikoa moteltzeko sistemek ibilgailuan sortu ditzaketan kalteen ardura norena denaren inguruan.</i></p> <p>Udalak erantzun du herrian jartzen diren sistema guztiak homologatuta daudela. Kalterik sortuz gero, ikusi behar da ongi kolokatuta dagoen. Dena ongi badago Udalak ez du inongo ardurarik.</p>

<b>KULTURA</b>	
Ave Maria parkeko eraikina	<p><i>Ave mariako eraikinaren gainean zerbait egingo den jakin nahi du bizilagun batek.</i></p> <p>Asko luzatzen ari den zerbait bada ere, kultur sorkuntzarako gune bat egongo da bertan. Kultur-mahai bat badago, kultur eragileekin elkarlanean, egingo den kultur ekipamendu berria kontuan hartuta, hasiera bateko proiektua berregokitzen ari dena. Beraz, une honetan, proiektuaren erredakzioarekin ari dira Artaziak kooperatibarekin elkarlanean; hau da, espazioaren nolakotasuna zehaztuta badago ere, espazio hori nola elikatuko den erabakitzeke partaidetzazko prozesu bat dago abian.</p>

<b>HIRIGINTZA</b>	
Etxeberriko semaforoa	<p><i>Zenbait bizilagunek adierazi dute Etxeberriko semaforoak, bereziki laranja dagoenean. Soilik gorria eta berdean jartzeko proposamena egin dute.</i></p>

	<p><i>Aldi berean, bereziki abiadura handian datozenekin, erreakziorako oso denbora gutxi gelditzen da. Interesgarria litzateke denbora gehiago uztea. Florida 08ko etxaldera jendea datorrenean arazo hau tenkatu litekeenaren beldur dira.</i></p> <p>Udalak bere egin ditu eskaera eta proposamenak.</p> <p>Florida 08ko proiektuari lotuta, azalpenak eman dira Udaletik. Auzoko trafiko dentsitate handia kontuan hartuta, etxaldearen proiektuak dentsitate honetan izango duen inpaktua neurtzeko azterketa bat egin zen (kontratutako enpresa aditu batek egina), egungo egoera eta etorkizuneko proiektzioa aztertzeko. Azterketaren ondorioek diote egungo sistemak etxalde berriaren eragina bere gain hartzeko ahalmena baduela.</p>
<p>Florida 08 etxaldearen gaineko informazioa</p>	<p><i>Bizilagun batek proiektuaren egoeraren gaineko informazioa eskatu du.</i></p> <p>Udaletik azaldu da etxaldeak 2 etxebizitza mota izango duela; etxebizitza kontzertatu eta tasatuak, alde batetik, eta salmenta librekoak, bestetik. Lehenengo multzoa egitea KONSTRUKTORARI dagokio eta hastear dago. Bigarren multzoa, Aldundiaren sozietate baten lurra izanik, Aldundiak enkantera ateratzea izango da hurrengo urratsa. Udaletik, tartean, Jaurlaritzarekin harremanetan ari dira lehenengo multzokoak alokairuzkoak izan daitezkeen, hasiera batean denak salmentakoak bait ziren.</p> <p>Esan ohi da garapen urbanistikoa hasi eta dena bukatuta egoterako, 4-5 urte behar izaten direla.</p> <p><i>Bizilagunak, jasotako azalpenaren gainean, etxaldearen eraikuntzak egungo zonaldeari nola eragingo dion jakin nahi izan du.</i></p> <p>Hurrengo fase batean, pabeloila tokiz aldatu behar da, hor lana badago. Baina horretarako, lehenengo faseak bukatuta egon beharra dauka, arauetan jarrita dagoen bezala.</p>
<p>Lizeagako sarrera-irteera</p>	<p><i>Bizilagun batek Lizeagako sarrera-irteerarekin zerbait egingo ote den jakin nahi izan du.</i></p> <p>Udalak erantzun du esanaz elizaren ondoan errotonda bat joango dela, aurrera begira errepidea ez bait da gaur egun doan bidetik joango, trenbide ondotik baizik, errepidea dagoen tokian parke bat egongo delarik.</p>

Trenbide azpiko tuneltxoa	<p><i>Trenbide azpiko pasoarekin ere zer gertatuko den jakin nahi izan du auzotar batek.</i></p> <p>Trenbide azpiko paso hau handitzeko proposamena atzetik datorren zerbait da. Udalak horrelako proiektu baten konplexutasun teknikoa, eta ondorioz, kostu altua kontuan hartuta, ez du bideragarri ikusten aukera hau.</p> <p><i>Auzotarrak, trenbide azpitik pasa ordez, gaineratik pasatzearen aukera aipatu du.</i></p> <p>Udalak azaldu du trenbide gaineratik pasoa egiteak zenbait etxebizitza behera botatzearen beharra sortzen duela. Hala eta guztiz ere, aukera hau aztertu da pentsatzen kostua bestea baino txikiagoa izango zela, baina ikusita bestearen antzekoa litzatekeela, aukera hau ere bertan behera gelditu da.</p> <p>Herri-bideen eskumena Udalarena bada ere, trenbidearekin lotura izanik, Adifen baimena ere ezinbestekoa da. Baimena emango balute eta Udala prest balego kostua bere gain hartzeko, beste erakunde batzuen diru-laguntzak eskatzeko aukera legoke, beti ere kostu osoaren portzentaje bat soilik ordaintzeko baliagarria.</p>
Bidebietako parkeko argiteria	<p><i>Jada bi eskaera bideratu dituen auzotar batek Bidebietako parkean argiteria gehiago eskatzeko baliatu nahi izan du aukera. Pin-pon mahaia... eta halakoak ongi daude argizatuta, baina badira ilun gelditzen diren beste hainbat.</i></p> <p>Udalak adierazi du bere egin duela eskaera.</p>
Haurreskola pareko autoentzako sartu-atera espazioa	<p><i>Bizilagun batek proposatu du haurreskola parean, autobusaren paradarekin egin den bezala, haurren sartu eta aterak errazteko, erreserbatutako espazio bat bideratzea.</i></p> <p>Udaletik azaldu da baloratuko dutela proposamena, haurreskolakoekin batera landuko dutelarik.</p>

<b>ALKATETZA</b>	
Etxeberri 7ko alegazioa	<p><i>Etxeberri 7ko garajearen aurrean era irregularrean jarritako eskaileraren gainean 2020an egindako alegazioaren inguruko erantzuna jasotzeko eskaera egin du bizilagun batek.</i></p>

Ekolur proiektua	<i>Auzobira prozesuaren bitartez Udaletik martxan jarritako ekimenen berri ematea oso ongi ikusten du auzotar batek. Baina, aldi berean, lur kutsatuen planta dela eta ez dira herritarrek kontuan hartuak izan eta saio honetan ez da aipatu. Horrekiko desadostasunak prozesuarekiko mesfidantza sortu dio, eta ondorioz, ez parte hartzea erabaki du. Bizilagunak saioa utzi du.</i>
------------------	---

### 3. ITXIERA

Ekarpenen tartearen ondoren, Farapik hitz egindakoa borobildu du eta honako gako nagusiak nabarmendu ditu:

- **Hirigintzari eta segurtasunari lotutako** gaiak izan dute protagonismo gehien; trafikoko dentsitateak sortzen dituen arazoak eta ibilgailuen abiadurak.
- Horrekin batera, kezka oso anitzak egon dira: **kultur-ekipamenduen** inguruko zalantzak, arratoiak...
- Dena aktan jasota geratu dela adierazi da eta fitxetan idazten den hori ere gehituko dela.
- Partaidetza eta deboluzio espazioen **balorazio positiboa** egin da, eta egindako lana aitortu da ere.
- Egin diren ekarpenak **aktan jasota** geratuko direla gogorarazi zaie bertaratutakoei.

Amaitzeko, alkateak Udalaren komunikazio-kanalak gogorarazi ditu, urtean zehar erabili ahal izateko: aurrez aurre, telefonoz eta Internet bitartez. Eskerrak eman dizkie partaideei etortzeagatik eta saioa euskaraz egiteko aukera emateagatik.

### 4. FITXETAN JASOTAKO EKARPENAK

Saioaren amaieran, bizilagun batzuek idatziz adierazi dituzte bestelako proposamen eta kezkak, banatu zaien fitxa batean.

- 1) Udal arduradunek egin duten aurkezpenetik zerk piztu dizu arreta? Zer dela eta?**
  - Autobusa: Antziolako paradatik (Heriotzaren aldapako errotonda ondoan dagoena) Atsegindegira soilik txartel 1 ordainduz egin ahal izatea.
  - Zuhaitz ikusgarri gehiago egotea (mimosak, gainkalde borobilduko pinu mediterraniarra) eta errotondatan lore gehiago landatzea.
  - Sagastialden arratoiei aurre egiteko neurri gehiago.
  - Iturmendiko eskailerak hobetzea.
- 2) Zeintzuk dira zure kezka edo behar nagusiak momentu honetan?**
  - Sagastialden, debekuaren seinalean hondatuta dago. Hau konpondu dezatela
- 3) Ba al daukazu auzorako proposamenik edo behar berriren bat nabaritzen al duzu?**
- 4) Udalak martxan dituen politika eta neurrien artean zeintzuk jarriko zenituzke balioan?**